

## **Funtsezko baliabideak**

Gure enpresak honako baliabide motak izango ditu:

### **1- Baliabide fisikoak**

**Bulegoa:** Bulego bat izango dugu, 40m<sup>2</sup>-koa. Bertatik enpresa guztia kontrolatu eta antolatuko dugu.

**Instalazioak:** Produktua ekoizteko ez ditugu behar instalaziorik, Sony eta Apple enpresak ekoitziko dituztelako.

**Ibilgailuak:** Ez ditugu ibilgailurik beharko, enpresa bat kontratatuko dugulako produktuak bezeroei bidaltzeko.

**Makinak:** Produktuak ekoizteko makinak ez ditugu edukiko fisikoki, Apple eta Sony-n sortu egingo dituztelako, baina bulegoan inprimagailua, ordenagailua, telefono finkoa, fotokopiagailua eta abar edukiko dugu.


**Sistema informatikoak:** Software informatikoa beharko ditugu gure enpresa kontrolatzeko. WiFi-a ere erabiliko dugu. Web orri bat eta aplikazio bat garatuko ditugu, gure bezeroek haietatik erosteko.

**Salmentarako puntuak:** Gure web guneaz gain, Sony-k eta Apple-ko dendetan ere salduko da. Denborarekin zehar, beste dendetan ere saldu nahi dugu, adb: Media Markt, Amazon.

**Banaketa sarea:** Banaketa enpresa bat kontratatuko dugu, produktu guztiak banatzeko bezeroei Apple edo Sony-n erosten ez badute, baizik eta gure web orrian. Hori egiteko, Fedex enpresa kontratatuko dugu.

### **2- Baliabide intelektualak**

**Marka:** Marka bat sortu dugu, Live Vibes izenarekin lotzen dugu eta hau da logoa:



LiveVibes izena aukeratu dugu gure enpresarako, kontzertu digitalean zaudenean oso bizia sentitzen zarelako, horren bibrak sentitzen dituzulako.

**Patenteak:** Gure enpresaren idea patentatuko dugu, oso azalpen zehatzekin, inork lapurtu ez dezan.

**Datu-baseak:** Gure enpresaren datu funtsezkoak gordeko ditugu hauetan; hala nola, bezeroen datuak, enpresaren datuak, hornitzaileen datuak, kolaboratuko ditugun enpresenak... Bezeroen datuak honela lortuko ditugu: gure web orrian suskribitzen direnean, fidetasun txarteletik, elkarteetatik... Bestalde, hornitzaileen datu base bat sortuko dugu. Bertan hornitzaileen datuak izango ditugu.

**Elkarteak:** Gure enpresak CTA, SIG, AES, RIAA, VRDA, SID... eta bezalako elkarteekin egingo dugu lan, gure ikuspegi, negozio-helburu eta gizarte-konpromiso antzekoak dituztekalako.

CTA, SIG, AES, RIAA: Elkarte hauek aurikularren teknologia aurrera eramateko egiten dute lan.

VRDA, SID: Elkarte hauek 3D-eko betaurrekoen teknologia aurreratu nahi dute.

Elkarte hauek ekitaldiak eta publizitate kanpainak egiten dituzte beraien nahia lortzeko eta beste enpresa batzuei laguntzeko.

### **3- Giza-baliabideak**

**Sormena:** Merkatuan produktu berri bat delako sormenez betetako talde bat behar dugu. Sormena behar dugu, publizitatea, merchandising, kartelak, produktuan berrikuntzak... egiteko. Gure enpresa sormenez beteriko talde bat da, bakoitzak ideia oso onak planteatzen ditugulako.

**Ezagutza:** Teknologia arloan ezagutza handia behar dugu, bereziki aurikularretan eta 3D-eko betaurrekoetan. Gure produktua oso ondo ezagutzea ezinbestekoa da gure enpresa sortzeko eta kudeatzeko.

**Gaitasun komertziala:** Gure enpresa aurrera eramateko gaitasun komertziala eduki behar dugula kontsideratzen dugu. Honek, publizitatea, kanpainak, iragargiak... kudeatzen lagunduko digu. Gaitasun honek asko lagunduko digu gure enpresa arrakastatsua bihurtzen.

### **4- Finantza-baliabideak**

**Eskudirua:** Bakoitzak 2000€ jarriko ditu proiektua aurrera eramateko. Guztira 8000€ izango ditugu proiektua aurrera eraman ahal izateko.

**Kreditu-lineak:** Daukagun eskudirua ez da nahikoa, beraz, mailegu bat eskatuko du bakoitzak. Gutxi gorabehera 50.000ko mailegu bat eskatuko diogu bankuari. Alokairua

ordaintzeko, materiala erosteko, gure soldatak ordaintzeko, funtsezko elkarteei ordaindu beharreko dirua emateko...